

...eta **kitto!**

738 zkia. 2010-X-29

ASTEKARIA

TOKIKOM



Amatatuko ez diren **IZARREN ARGIA**



Clinica Oftalmologica
RECALDE
Oftalmologia Klinikak

FEMTOSEGUNDOKO LASERRA

Plaza Barria, 2 - 2º - Tfnoa.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



IRAZABAL

clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552



ANTONIO MURILLO doktorea




AINHOA ZULUETA doktorea


“Instalazioen erosotasunak goi mailako zerbitzua bermatzen dio bezeroari”

UDAZ GEROZTIK ERABAT BERRITUTAKO IRAZABAL HORTZ KLINIKAREKIN TOPO EGINGO DUTE BERTARA DOAZEN BEZERO GUZTIEK.

Beti ere funtzionaltasuna helburu, inauguratu berri duten klinikan ez diote diseinuari uko egin eta instalazio berriek erosotasun osoa eskaintzen diete pazienteei: punta-puntako teknologiarekin hornitu dituzte kontsultarako gelak eta, horri esker, ahoaren zainketa integralerako behar diren tratamendu guztiak eskaintzeko moduan daude Irazabal Hartz Klinikari. Baina tratamenduetan ez ezik, bezeroari arreta eskaintzeko orduan ere nabari dira aldaketak. Izan ere, kontsultan eman beharreko denbora ahalik eta erosoan egon dadin pentsatuta daude altzariak, dekorazioa eta bestelako elementu guztiak eta, hori gutxi balitz, kontsultan dagoen bitartean bezeroak telebista ikusteko aukera dauka. Doktoreek eurek ere erosoago jardunda, zerbitzuaren goreneko kalitatea ziurtatuta dago eta klinika berrian, gainera, bezeroei arreta eskaintzeaz gain beste dentista batzuei ikastaro bereziak ematen hasi dira. Klinika goitik behera berritu duten arren, atearen beste aldean lehendik ezagunak zaizkizun profesionalak aurkituko dituzu, Antonio Murillo eta Ainhoa Zulueta doktoreak buruan direla. Zain dauzkazu **ODONTOLOGIA, AHO-KIRURGIA, PERIODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA ARLOETAKO EDOZEIN PREMIARI ERANTZUNA EMATEKO PREST.**



Zain egoteko harrera-gela erosoak.



Aho-tratamenduetarako teknologiarik aurreratuena.



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKTATZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi,

E. Belar eta S. Hernandez

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARAGAZKIA:

Izarren Argia

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

GONAZALE.- Andrazale, neskazale. "Alde batera laga ezkerro, nagia zala, jokolarixa eta gonazalia, ostian ona eta maittia zan nere senarra".

GONETAN.- Umeek gona janzten duten sasoi. "Gure umia atzo arte ojalietan; gaur gonetan eta berihala ipiñiko dogu fraketan".

GORANTZIAK ASKO, MERKIAK DIRA TA.- Eskuminak ematea askotan formulismo edo kunplimendu hutsa baino ez dela adierazten du esaldiak. "Heldu zaittianian herrira, gorantziak asko deneri, merkiak dira ta".

ESKUTITZAK

TALLARRA ETA GUNE ASKEAK MAITE DITTUGULAKO

Sasoi gogorak bizitzen dihardugu; udazken hau ez dogu berehalakuan ahaztuko, ez. Guri be tokatu jaku udal honek bermatzen daben obrismo kronikuaren eragin latza jasatia; **Tallarra** gaztetxia bota egin nahi dabe eta udazkenak eruangoa daben beste hosto bat izango da hori.

Leku hori geuk egin genduan, tallarra hutsa izatik sistema nazkagarri honetan bizirauteko babesleku bihurtu baikenduan. Errespetua, okupaziñua, autogestiñua, borrokia eta, batez be, bizimo-

dua ulertzeko eta bizitzeko tresna garrantzitsu horri esker hezi eta hazi gara. Asko ikasi dogu: gure buruan siñesten dogula ikasi dogu, eta beste gauza askotan ez dogula siñesten be bai.

Tallarra, udazkeneko azkenetako hostua baldin bada, ez detsagu udalari orbel hori errazten lagako. Paretak bota arren, ideiak iñoiz ez diralako galduko. Tallarra beti egongo da bizirik gure bihotzetan!!!

TALLARRA GAZTETXIA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Ez dut uste bideojokoak hain txarrak direnik: ikusi da bideoekin jardundako zirujau bat ehuneko 40 gutxiago huts egiten dela operazioak egiterakoan. Ordenagailuetako kontsolek eta bideojokoek ikusmen aditasun selektibo deitzen dena eskaintzen digute kartara eta aparatu horiek erabiltzera ohitzen diren gazteek azkarrago ikasten dute benetan garrantziko dena gehigarri denetik desberdintzen"

(Eduardo Punset, komunikatzailea)

"Mendebaldeak sustatutako Irak eta Afganistango gerrek miseria gehiago ekarri die emakumeen eskubide eta ongizateari. Feministek laguntzeko mendebaldeak duen nahia feminista musulmanekiko errespetu falta izugarria da; feminismo islamikoa arrakastatsua izateko, emakume musulmanek egin behar dute. Mendebaldeak mesede ikaragarria egingo lioke munduari etxeko eskubideak zainduko balitu"

(Ein Anwar, Islamaren ikertzailea)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

IZENDAPENA

Eibar Zientzia eta Berrikuntzaren Hiri izendatu deiren hautagaizta presentau dabe. Espainiako gobernuak egitten daben deialdixan 20.000 eta 50.000 biztanle bittarteko hirixak onartzen dittue eta aste honetan bertan emon dabe aditzera gure herrixa izendapen hori jasotzeko aukerak dittuenen artian daguala. Urte amaieran jakingo da bereizgarri hori jasotzeko aukeratzan daben herrixaren izena.

ELKARTASUN ZOZKETIA

Elkartasun zozketan sarixa jasotzeko urten diran zenbakixak jarraixan emoten dittugunak izan dira: lehelengua 070.570 (ordezkua 063.592), bigarrena 035.373 (ordezkua 075.816) eta hirugarrena 047.816 (ordezkua 012.828).

1937-AN JAIXOTAKUAK

Azaruaren 19xan (barixakua) 1937xan jaixotakuak alkartuko dira eta aurtan, gaiñera, 73. urteurrena ospatzeko aukeria eukiko dabe. 12.00xetan Untzagan elkartu, taldiaren erretratua etara eta, jarraixan, Peña Txinberan piskolabisa eukiko dabe. Handik urten eta txikiteuan ibilliko dira, 15.00xetan Arrate hotelian bazkaltzen hasi aurretik. Musikiarekin girotutako bazkalostia eukiko dabe. Juan nahi dabenak 50 euro sartu bihar dittu Kutxako 21010109180127599090 zenbakixan.

Errebal Plataformia kondiziñuen kopixia eskatzen

ERREBAL PLATAFORMIA-KUAK UDALARI ESKAERIA EGIN DETSE, betebiharreko baldintzak jasotzen dittuan agirixaren kopixia eureri eman eta, holan, plataformako kidiak idatzixak jasotzen daben informaziñua repasatzeko aukeria euki deixen eta, bide batez, aportaziñorik egitteko aukerarik ikusiko balebe, aportaziñuak egiñ ahal izateko.

Plataformako ordezkariaren berbetan, *“aurretik Errebale-rako egon zan proiektua eza-gutzera emoteko modua, gure iritziz behintzat, oso egokixa izan ez zanez eta herrittarrak*



informaziñua bihar dan moduan ez ebela jaso pentsatzen dogunez, guri kopixia emotiaz gaiñ Urbanismorako aholkularitza batzordiak be irakortzia eskatu nahi dogu,

behin-betiko onartu aurretik. Holan herrittarren artian zabaldu leike eta baten batek zeozer gehittu edo gaiñeratzia nahi badau, horretarako aukeria eukiko leuke”.



9. zenbakititik 11-13 zenbakixetara kanbixauko da geltokixa. / SILBIA HERNANDEZ

Autobus geltokixa mugiduko dabe

SAN JUAN KALIAN URAREN TUBERIXAK ESPALOITTIK SARTZEKO BIHARRIAN

dihardue egunotan eta, udaltzaingotik aditzera emon deskuenez, biharra hor kaliaan dagan autobus geltokixa tokiz kanbixatzia eragingo dabe: oiñ arte 9. zenbakixaren parian egon dan paradia 11-13 zenbakixen parian ipiñiko dabe, tuberixak sartzen segidu ahal izateko. Honezkero hasi dittue kanbixua egiñ ahal izateko biharra.

1955kuen jaixa

BESTE ASKOREN MODURA, 1955. URTIAN JAIXOTAKO EIBARTARRAK BE euren jaixa euki eben eta, erretratuan ikusi zeinkie-nez, deialdixak arrakasta haundixa euki eban, talde politta batzia lortu eben eta. Honezkero ohitturia bihurtu danari jarraituta, taldiak Untzagan erretratua etara eban eta, jarraixan, txikiteuan ibilli ziran, bazkaltzera juan aurretik.



Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik osasun zentru eta etxeetan egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: ZERBITZU IRAUNKORRA: Txalixa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ☎ 943 201095 faxo 943 202564



Krabeliñeko maridajia gaur hasiko da

URTEROKO MODUAN, EHI-ZA-SASOIAREKIN BATERA HASIKO DIRA ARRATEKO KRABELIN JATETXIAN Maridaje Jardunaldixak, jatetxe-ko ugazabak diran Mireia Alonso eta Jon Odriozolak antolatzen dituen zazpigarrenak. Aurreko urtietan azaroko barixakuetan izan dira jendiaren artian arrakasta haundixa izaten daben afarixak, baiña aurten ez dira konformau lau jardunaldirekin

eta bosgarrena be preparau dabe, San Andres jaixen bueltan (azaruaren 27xan, zapatuan): Codorníu taldiaren eskutik egingo dan jardunaldixan José Ramón Agiriano adituak gidatuko daben Idiazabalgo gaztekin degustaziñua eskinduko dabe. Azken jardunaldi horrekin hamaika lehiaketatan epaimahaiko kide modura lagun izan daben Jesús Artolazabali omenaldixa eskindu nahi detse.

Gerra sasoiko memorialaren proiektua


URRIAREN HASIERAN UDALAK PRESENTAU EBAN "II. ERREPUBLIKAREN ETA GERRATEAREN MEMORIALA EIBARRREN" proiektuaren laburpena interneten ipiñi dabe. Orduan presentau eben proiektuaren bersiño laburtua www.egoibarra.com helbidian dago eta pdf-ia jaitsei leike. Asmua, nahi dabenak hori irakorri ondoren bere iritzixa emotia edo proposamenak egittia da.



Agur Tallarra gaztetxiari

ZAPATUAN TALLARRA GAZTETXIAN ESKINDU ZITTUEN KONTZERTUEKIN eta ondorengo jaixarekin agurtu nahi izan eben Tallarra gaztetxia han batu ziranak. Izan be, gaztiak azaldu deskuenez, "eraikiñaren jabia dan Udalak Tallarra hustutzeko agindua azaruaren 2rako, 11.00etarako emon dau". Horren aurrian, "desalojua salatzeke eta gune aske eta autogestionatuak defenditzeke", gaztetxe-kuak martitzenerako manifestaziñua deittu dabe. 19.00etan hasiko da, Untzagan.

anzorik anzo



Eguen arratsaldiak berezixak dira Urkizun

Aste bittik hona eguena "Piskolabis Eguna" da Urkizun aldian. Hori holan izatiaren arduria, barriz, Urkizuko tabernarixak dake. Izan be, eta hor inguruan txikiteua berpiztu eta indartzeko asmoz, zeozer berezixa antolatzia pentsau eben eta, euren kontuen gaiñian jarduteko eukitzen dituen billeretako batian baten batek proposamena bota eban: asteko egun bat hartu eta arratsaldian, jendia txikiteuan ibiltzen dan tartian bezerueri eskintza erakargarrixa egittia eta, herrittarrak poltsikuan dituen xotxeri sekula baiño gehixago begiratzin detsen sasoi honetan, oso ondo hartu daben ekimena ipiñi dabe martxan. Piskolabis Eguna izenarekin "bataiatu" dabenari esker, eguenetan 18.00etatik 21.00etara Urkizuko taberna gehixenetan, ekimenarekin bat egin dabenetan behintzat, tragua eskatzian pintxo edo tapa modokua duan etarutzen hasi dira. Ibai-Ondo, Arno, Guri Guri, Sagar-bitza, Agiñaspi, Fausto, La Jara, Iturri, Valle, Etxegiña, Manuel, Zubi-gain, Baisi eta Galiziako Etxea dira horretara animau diranak eta, euren karteletan azaltzen daben moduan, "etorri zaitte pote bat hartzera eta piskolabisa gure kontura".


eibar kaleka

Legarre kalia

Legarre kalia Torrekua eta Arrate-Bide tartian daguana da eta izen horrekin deittu izan jako kalia ez eze haren inguruari be, auzuari. Gaur egunian desagertuta badago be, sasoi batian Legarre izeneko basarixa egon zan Mandiola ballian.

Pegora kopurua: 10.

Eroldatutakoak: 414



asteko

%2,8

datua

kua izango da Eibarko Udaleko funtzionariak soldatetan batzabeste eukiko daben murrizketia. EUDELe egindako proposamenari jarraituta, aste honetan bertan hartu dabe erabagixa eta, beraz, ekaiña eta abendua bittarteko soldatetan aplikauko dabe murrizketia.



Udalbiltzako auzipetuak epaiaren zain

EIBARREN, BESTE HERRI ASKOTAN EGINDAKUAREN BIDETIK, UDALBILTZA AUZIAN AUZIPERATUTAKUERI ALKARTASUNA erakusteko asmoz alkarrataratzia egin zan zapatuan. Honezkero amaittu da julixuan hasitako epaiketia eta, auziperatutakueri babesa emoteko taldietakua diñuenez, “defensaren abokatuak goitiek behera bota dittue akusaziñuak, baiña fiskalak hamarna urteko kartzela-zigor eskaerari eutsi detsa”. Auziaren oiñarri bakarria “polizien txosten partzial eta okerrak” dirala ohartarazi dabe eta abokatuak argi ikusten dabe “epai posible bakarria absoluziñua” izan leikiala. Horregaittik, defensak “justizia egiñ eta auzipetu guztiak absolbitzeko” eskatu dau. Javier Gómez Bermúdez buru dakan epaimahaixak saioa epaiaren zain laga dau.

Tere Gantxegiri errekonozimendua

EGUAZTENIAN EMON ZETSEN GIZARTE BALIOEN I. SARIXA TERE GANTXEGIRI DEBEGESAN, garapenerako agentziaren 25. urteurrena ospatzeko antolatu daben programaren barruan. Herri-xan oso ezaguna dan Tere Gantxegi eibartarrari sarixa emoteko arrazoia, “*Debabarrenian sustatu nahi diran lau balioak primeran ordezkutzen dittuala*” izan zala azaldu eben epaimahaiko kidiak eta, horrekin batera, bizi guztia bestieri laguntasuna eskintzen emon daben andra honen partehartze zuzena jaso eben hainbat proiektu ekarri zittuen gogora: Mercedes Kareagarekin batera Goi Argi an-



Tere Gantxegik Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusixaren eskutik jaso eban errekonozimendua.

drendako soziedadia (Españia osuan holako lehelena) eta bestela biharren bat nekez topauko leukien gaztiendako Cayetano Careaga Babestutako Taillarra sortzia. 1972xaz

geroztik Eibarko Patronatuan egitten dau biharra, oindiok be bestieri laguntasuna eskintzen. Markel Olano ahaldun nagusixaren eskutik hunkittuta hartu eban oroigarria.

Bulego Judizial barrixa

AZARUAREN 3-A BAIÑO LEHEN IPIÑIKO DABE MARTXAN EIBARREN BULEGO JUDIZIAL IZENAREKIN ezagutzera emon dabena, Irunen eta Getxon egindako esperientzia pilotuarekin lortu dittuen emaitzekin pozik geratu baitira Justizia saillekuak. Oraingoz aldaketia Eibarren, Irunen, Azpeitian, Amurrio eta Getxon baiño ez dabe egingo. Beraz, estadu mailan sistemaren erreforma hori aplikatzen lehelenguetakua izango da gure epaitegixa, aittatu



barri dittugun herrixetako buleguekin batera. Gaiñontzeko epaitegixak poliki-poliki juango dira sistema barrixarekin bat egitten, aurreikusitta dittuen epieri jarraituta, eta 2013. urterako bulego guztiak epaitegixetako biharra arintzia billatzen daben sistema barrixaren parte izango dira.

Odol-emotailleri esker ona azaltzen

AURREKO ASTEKO ALIAN AURRERATU GENDUAN MODUAN, DEBARRENA ETA DEBAGOIENAKO hainbat odol-emotaillek omenaldixa jaso eben Elgetan, urtietan odola emoten jardun eta gero 25, 40, 50 eta batzuk 60tik gorako donaziñuetara aillegau diralako. Errekonozimendu modura Gipuzkoako Odolemaileen Elkartearen intsignia eta diploma bana jaso eben aurtan omendu dittuen lagunak, tartian erretratuan agertzen diran 36 eibartarrak. Horrez gaiñ, eguna jai giruan emon eben urtero ospatzen dan ekitaldira jua ziran guztiak eta, bestiak beste, Espaloia Kafe Antzokixan bapo bazkaltzeko aukeria euki eben.



Ekitaldian bildutako Eibarko taldia.


Halloween edo sorgiñen gaua Estatu Batuetan ospatzen da, batez be, urriaren 31n gabaz. Berbiak be Domu Santuko bezperia esan nahi dau eta anglosaxoi herrixetatik mendebaleko kulturetara juan da zabaltzen. Ohikuak dira koko-jantzixen jaixak, sorgindutako etxietara bisitak egittia eta beldurrezko istorixak kontatzia.

Halloween ospatzeko ohitturia badakazu?



JON ZUBIAURRE
31 urte
promotoria

Ez dakat ospatzeko ohitturarik, baina beste batzuk ospatzia ez dot txarto ikusten. Holakuetan bakotxak ikusi bihar dau...




M^a EUGENIA AGIRRE
45 urte
promotoria

Ez dot ospatzen. Badakitt taberna batzuk apaintzen eta ospatzen hasi dirala, baiña nik ez dot ikusten hamen. Nere alabak ospatzekotan dagozela uste dot, baiña... Tontokerixia begittantzen jata.


ARRATE UNZETABARRENETXEA
68 urte
etxeoandria

Ez dot ospatzen; horrek gauzatarako adiaña pasauta dakat nik. Dana dala, amerikanuen gauzia dala begittantzen jata; ez da guri dagokigun gauzia.



IGNACIO URUÑUELA
50 urte
metalurgikua

Tontokerixia begittantzen jata Halloween gure artian ospatzia. Le-kuz kanpo ikusten dot halako gauza bat hamen.



66553
...eta kitto!-ko
GABONETAKO LOTERIA

salgai duzu:

- Mujika harategia
- Urkizu prentsa
- Bofintxo
- Zabaleta okindegia
- Narra konplementuak
- San Andres gozotegia
- Askasibar kirolak
- Kultu taberna
- Valenciaga jantzidenda
- Udal Euskaltegia
- AEK Euskaltegia
- Isasi okindegia
- Izadi loradenda
- Untzaga prentsa
- Dibutek fotokopiadenda
- Zubi-Gain kafetegia
- Bankoa
- Correos
- ...eta kitto!

Loteria hartzailen artean, abenduaren 15ean GABON-OTARRA zozketatuko da

EGOITZA NAGUSIA
Bilburieta 20 - beheko, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

Tanatorio eta Errausketa labea

- Eigoibonen (Signo poligonoan)
- Partikular, mutua eta aseguru etatei zerbitzuak
- Korak - Eskelak - Urtumano eskelak
- Euskal Herri osoa ospitaleen hartzen da lugu
- Nazio eta Nazioarteko itzaldioak

Mugica Ehorzketa
Funerariak labea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Aurreko asteburuan estrenau eben Coliseo antzokixan "Izarren Argia", Saturraranen andrazkuendako egon zan kartzelaren inguruko gorabeherak kontatzen dittuan pelikulia. Baleukok ekoiztu daben lanaren proiektiñuak irauten daben 90 miñutuetan ikusliak denporan atzera egitten dau, askorendako fikziñozko kontuak besterik ez diran zulo baltzenetan sartzeko inbitaziñua luzatuta. Baiña gure errealidadiaren eta pelikulan agertzen diran personajiak erakusten dabenaren artian 70 urte besterik ez dira pasau. Eta Saturrararen hortxe daukagu, aldamenian. Baiña, sarrittan, zeozer gertu eukitta be arrotza egitten jaku. Horrekin konturatu dira ikusle asko zinetik urtetziarekin batera.

Saturrarango kartzela antiñia baiñuetxia izan zan, baiña proiektu honetan biharrian jardun dabenak diñuen moduan, "gitxiak jakingo dabe gerraosteko gertakaririk gogorrenetakuak bizi izan zirala bertan 1938. eta 1944. urtien bittartian. 5.000 bat andra iñolako motibo barik kartzelaratu zittuen, askatasuna kendu zetsen. Seme-alabak lapurtu eta umiak famelixa falangisteri adopziñuan emon zetsazen. Hori guztia Vallejo doktoreak zittuan gitxiagotasun mentalaren teorixa ankerra oiñarri hartuta".

Errepreñio ikaragarrixa sufridu eben andra horrek goguan, memorixa historikua berreskuratzeko ahalegiñ honetan orduan sasoiñ bizi izan ziran andren figuriak hartzen dau pisu gehixen eta, egilliak esplikatzan daben moduan, "pelikulia andrazkuen ikuspegiñtik, gene-



IZARRAK oroimenaren zerua argitzen

ruari erreparatuta egindakua da. Andrazkuak eta memorixa historikua batzia billatzen genduan, hain zuzen be Euskadin holako zeozer egittia falta jakun oindiok be".

Ezkutuan egondako bizipenak

Memorixa historikua berreskuratzeko premiñaren inguruan iritzi kontrajarririk dagoz, batzuk alde dagoz (horren artian gehixenak errepreñiñua sufridu eben famelixetakuak dira) eta beste batzuk kontra (horrek aspaldiko kontuak dirala eta oin atzera be hautsa astintzen ibiltzeko premiñarik ez dabe ikusten). Edozelan be, badira urte batzuk "memorixa historikua" esaten detsagun hori berreskuratzeko mugimendua, bestela izan ez leikian moduan, mugitzen hasi zala. Eta, gustau seguruenik iñori gustatzen ez jakozen ipuiñiak atzera be entzuten hasi ziran. Eta, zorionez, kontakizun asko eta asko historixaren parte horretan protagonista izan ziranen ahotik zuzenian urtendako berbekin osatutakuak dira. Saiakeriak urtietan oso nagusi harrapau badittu be, argi dago euren memoriñiak, benetako memoriñak historikuak ez detsela kale egiñ. Eta holan



Pilar Calvo da Saturraranen egon ziran eibartarren artian bizirik geratzen lekuko bakarra. Benetan gorrixak ikusi zittuan gerra sasoiñ eta ostian. Saturraranen ikasi eban irakortzen eta idazten: lehelengo idatzixa aldameneko dedikatorixia.



juan dira urtetzen, etxerik etxe, herririk herri, historixia ikertziari ekin detsen profesional eta zale askoren ahalegiñari esker, iñoren gustokuak ez diran istorixio gordiñak. Gure herriko historixia berreskuratziaz aparte, ondare hori gorde eta ahal dan neurrixan zabaltzen arduratzen dan Ego Ibarra batzordiak jasota dakan Pilar Calvo eibartarren historixia latzaren moduko millaka eta millaka istorixio. Gustatzeko ezer ez daken, baiña danok ezagutzia komeni dan istorixuak.

Pilar Calvo, lekuko zuzena

Saturrarango kartzela barruan pasautakuak bertan preso euki zittuen andrak baiño hobeto ez dau iñork jakingo eta Eibarren


be badakagu estrenau barri daben pelikuliak kontatzen dittuanak zuzen-zuzenian sufridu ebanik: Pilar Calvo Arnaiz da Saturraranen egon ziran eibartarren artian bizirik geratzen dan lekuko bakarra. Bere bizitzaren gorabehera latzen barri emoten deskue Ego Ibarra batzordekuak euren webgunian pelikularen estrenuaren harira irakortzeko moduan ipiñi daben artikuluan. Izan be, batzordetik bertatik azaldu deskuen moduan, "Saturrarango emakumiñen kartzelaren historixia latza ederto asko kontau zeikian, bere 95 urtekin osasunak lagunduko baletsa. Pilar, Talavera de la Reinan jaixo zan 1916ko uztaillaren 11n, José Rocarekin ezkondu eta alaba bakarra izan eben. Santa Laya bere herrixan,

*Josék alderdi komunistaren tal-
dia sortu eban”.*

Eta senarrak egindakua, jaki-
ña, orduan sasoiaren nahikua
“pekatu” zan, hil ostian ez eze,
aurretik be infernua bizi izateko:
“Gerra sasoiaren auzoko batek
salatu zittuan eta andra-gizo-
nak kartzelara eruan zittuen.
Eta 1939ko ekaiñaren 29xan
Gerra Kontseilluak zigorra ezar-
ri zetsen: Pilar Calvori 30 urte-
ko kartzela eta Joséri heriotza-
zigorra. Gizona Ocañan hill
eben, baiña, fusilau aurretik,
borreruek elizatik ezkontarazi
nahi izan zittuan”.

Kartzelarik kartzelara

Holako situaziñuan geure bu-
rria kokatzeko kapazidaderik ez
dakagunok kostata ulertu geinke
jende honek aurrera egiteko in-



darra nundik etarutzen eban,
baiña, edozelan be, ezkontza
proposamenarekin jua jakoze-
nian Pilarrek ezetz, zibililetik ez-
konduta eguazela eta bere gizo-
na hala hilko zala erantzun ze-
tsen. Horren ostian Pilar Toledo-
ko kartzelara eruan eben; han-
dik, Madrillera, Durangoko ko-
mentura gero, Zornotzara ondo-
ren; Barbastroko kartzela be
ezagutu eban eta, azkenian, Sa-
turraranera eruan eben. Konta-
tzen dabenez, “gorrixak ikusi zi-
ttuan han: jatekua urri, alabia
bere famelixarekin Talaveran la-
gata, famelixakuen kartarik ez...
Halanda be, gazteak ziran eta
kanturako eta dantzarako tarte
batzuk be topatzen ei zittuen.
Asko eskertzen dabe, inguruko
herrixetako jendiak emoten ze-
tsen laguntasuna be”. Bestete-

tik, orduan oso ohikua zan mo-
duan, aurretik sekula eskolara
juan bakua zan eta Saturrarane-
n ikasi eban irakortzen eta
idazten.

Esaten daben moduan, egoe-
rarik okerrenian be beti agertzen
dala itxaropenari atiak zabaltzen
detsazen argitxoren bat eta, ur-
tietan sufritzen jardun ondoren,
azkenian zigorra kommutatu eta
kartzelatik etara eben: “Handik
urten eta Ondarroako famelixa
batek etxian hartu eban. Baiña
kanpua egonagaittik ez zittuan
espetxe barruan lagatako lagu-
nak ahaztu eta astero, eguene-
tan bisittan juaten jakuen, jateko
zeozer eruatera”.

Handik denpora gitxira Pilar
Eibarrera etorri zan bizitzera eta
gernikar batekin ezkondu zan.
Bigarren gizonarekin seme bi
eta alaba bat izan zittuan, baiña
bizitzak arnasia hartzeko tarte-
txo bat eskintzen zetsala emo-
ten ebanian, gauzak atzera be
okertzen hasi ziran: senarra
gazterik hil jakon eta bizimodua
aurrera eteratzeko, bere situazi-
ñuan eguazzen beste guztien
modura denetarik egiñ eban:
apopiloak etxian hartu, pegorak
garbittu, etxiak... 1960xan hiru-
garrenez ezkondu zan. Oin dala
pare bat urte eta oroimena lau-
sotzen doiala, sorterrira bueltau
zan eta han bizi da gaur egu-
nian be.

MEMORIXAREN barrena biajatzeko AUTOBUSA

Memorixaren autobusa presentatzeko oin dala egun batzuk egindako ekitaldixan parte hartu ebenak diñuen moduan, “Izarren Argia pelikulia baiño zeozer gehixago da, gizartian zabaldua dagan sentimientuaren, herritarrak euren senide eta laguneroimenari eusteko, eurekin akordatzan segitzeko eskatzen daben garraxixaren oihartzuna izan nahi daben proiektua da”.

Gerra sasoiaren zapalduta egon ziranen sufrimendua, errepresiñua jasan bihar izan eben guztiak senti-
tidu ebena islatu nahi dabe, baina, izaera soziala dakan historixia dan aldetik, gizartiak be kontatzen dabenarekin bat egittia billatzen dabe, moduren batian parte hartzeko aukeria eskindu nahi izan detse, “herritarrak proiektuarekin bat egitteko, esaten dabena nunbaiten entzun egitten dala sentitzeko... az-
ken batian, parte hartzeko aukeria euki deixen”.

Idea hori goguan jaixo zan memorixaren autobusa, memorixaren izarren autobusa: “Garraio bide so-
ziala, memorixaren bidieri jarraituta eta ‘ez nigarririk egin, baiña ez zaittie gurekin ahaztu’ esaldixa go-
guan, benetan ekimen soziala aurrera eruateko”.

Autobusak, bidiari ekiñ aurretik hutsik eguan zerua eta aittatu barri dittugun berbak batu dittu. Baiña
herririk herri, ibilbidia betetzen doian neurrixan, zeru hori dir-dir egitten daben izartxoekin betetzen
juango da eta izar hórretako bakotxian militarren altxamenduan edo ostian etorri zan errepresiño fran-
kistan hildako lagun baten izena egongo da idatzitta: “Izar eta firmekin betetako zerua osatzen juatia
da kontua, gure memorixia erabillitta izarrek gaur egungo sasoiraiño ekartzeko, atzera berpizteko eta,
holan, justizia egitteko”.


Autobusak urriaren 16xan
ekin zetsan bere bidiari On-
darru-Mutriku aldian eta,
Hernani, Arrasate, Aretxabala,
Bilbo, Irun, Gasteiz, Ses-
tao, Iruña, Durango, Sarta-
guda eta Legazpittik pasau
eta gero, memorixia gidari
izango daben ibilbidian az-
ken geldiuia Gernikan egiñ
aurretik, azaruaren 5ian Ei-
barren eta Elgoibarren geldi-
tuko da, geuk be zeru horre-
tan betirako argixa emongo
daben, sekula amatauko ez
diran izarrekin memorixaren
zeru hori apaintzeko aukeria
izateko.



Autobusa Eibarren azaruaren 5ian izango da, Txaltxa-Zelaixan, 12.00xetatik 19.00xetara arte.

Malkorik ez, baiña ez ahaztu

“Izarren argia” pelikuliak Pila-
rren moduko bizipen latzak kon-
tatzen deskuz, negarguria eragi-
tten daben fotogramak, bata
bestiaren atzetik ikusten amai-
tzen dabenian, ikusliak korapillo
bat dakela urtetzen dabe zinetik.
Baiña, halanda be “negarrik ez,
gogora gaitzazue” eskatzen da-
ben ahotsak diñuena entzutiak
estuusun-une hori pasau biharra
eta gehixago merezi dabe. Ho-
rrenbeste zor detsagu egunetik
egunera eta bizilegez desager-
tzen doian generaziño osuari.




Marivi Bilbao-k Ibilbide luzeko aktorea **ESANA** antzerki, zinema zein telebistan

“Nik ZINEMA egiten segitu nahiko nuke. Horrek mugitzen dizkit barrenak. Gertatzen dena da amona xahar bat behar dutenean, lodixka eta arratsaldetan puntua egiten ibiltzen dena nahi izaten dutela, eta ni ez nautela sekula horretan irudikatzen. Nik saiatzen lagatzeko erregutzen diet, gustura eta ondo egingo dudala, baina alferrik.

ANTZERKIA egiteko, ordea, zahartu egin naiz. Goizean esnatzen zaren momentutik, badakizu iluntzean teloa igoko dutela, eta horrek asko baldintzatzen dizu eguna. Antzerkia oso polita da, asko ikasten duzu, asko irakasten dizu, baina nire adinean ez nago geratzen zaizkidan egunak baldintzatzen prest.

TELEBISTA eta zinemaren industria negozio interesatuegia da edertasun hutsean oinarritzeko. Ez pentsa jendea ederra delako soilik aukeratzen duenik. Hor badaude, joko ematen dutelako da”.



ZINEA

Kimuak-ek katalogo berria aurkeztu du

EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILAK ETA EUSKADIKO FILMATEGIAK ANTOLATUTAKO PROGRAMAK AUKERATU DITU BERE KATALOGO BERRIAN SARTUKO DITUEN 9 KOR-TOAK. Lehiaketara aurkeztu ziren 76 lanetatik aukeratu dituzte bederatzi horiek, eta nazioartean ezagutzera emateko aukera emango zaie. Iaz baino lan bat gehiago sartu da aurten katalogoan, eta antolatzaileek jakitera eman dutenez horrek adierazten du euskal kortoen kalitateak gora egin duela azken urteetan.



Paul Urkijoren azken lana Sitges-en

GASTEIZKO ZINEMAGILEAREN “JUGANDO CON LA MUERTE” LANAK SITGES- EKO ZINE-JAIALDIKO SAIL OFIZIALEAN LEHIATUKO DU LABURMETRAIEN ATALEAN. Lehen aldiz hartu du parte Urkijok Kataluniako jaialdi horretan eta pozarren agertu da, nazioartean proiektioa duen jaialdia da-eta. Sitges-en atzetik hainbat jaialditan aurkeztuko du bere azken lana, eta besteak beste, luzemetrai bat egiten hasteko asmoa duela esan du gasteiztarrak.

ANTZERKIA

Errautsak antzezlaren aurkezpena

ERRAUTSAK EGITASMOA ORAIN DELA 4 URTE SORTU ZEN ARTEDRAMA ETA LE PETIT THEATRE DE PAIN TALDEEN ESKUTIK. Beren baliabideak elkartu eta euskarazko sorkuntza garaikidean batera lan egitea erabaki zuten. Urteetan elkarren berririk izan gabe egon ondoren, gaztaroko lagun baten hiletan bilduko den lagun taldearen eskutik dator antzezlana. Azaroan hainbat herritan eskainiko da lana. Informazio gehiagorako begiratu www.errautsak.com helbidean.



Antzerki eta Dantza Garaikidearen Jaialdia Bilbon

GAUR HASI ETA AZAROAREN 7-RA ARTE LANIK BERRITZAILAENAK IKUSTEKO AUKERA ESKAINIKO DU JAIALDIAK. 11. edizio honek antzezlari abangoardistenak ekarriko ditu Bilbora. Bilbao-Eszena Bilboko Baliabide Eszenikoen Zentroaren programaren barruan sortutako bost proiektu eskainiko dira bost egunetan. Horrez gainera, Arte Eszenikoetako profesional eta zaletuen arteko hartu-eman bultzatuko da.

Errabal Jaialdi Ibiltariak ez dio huts egin urteroko zitari eta aurtengo bigarren emanaldia Coliseoan eskainiko du, Red House Bandaren aktuazioarekin. Azaroaren 6an, zapatuan, 20.00etan hasiko da XXI. mendeko blues zale porrokatuenentzat prestatutako kontzertua. Aurten jazz-a, blues-a eta musika beltza batu dituen Errabal jaialdiak azken jardunaldia izango du handik aste bira, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian entzun ahal izango den Kase.O Jazz Magnetism emanaldiarekin; saio hori azaroan 20an izango da, 22.00etan hasita. Aurretik, urriaren 23an, DeDiego Brothers-ek jo zuten Soraluzeko Kiroldegiko aretoan.

Bluesa maite dutenek galdu ezin duten kontzertua

Jeff Espinoza eta Francisco Simónen arteko aspaldiko adiskidetasunaren eta eskarmentu handiaren emaitza da Red House. Tandem honen historiak Espainian, Flying Gallardos taldeko kide gisa elkar ezagutu zutenean du abiapuntua. Harrezkero, elkarrekin garatu duten lanaren ondorioz, Europako blues talderik onenetakoa bihurtu da. Red House bakarrik zuzeneko emanaldietan bizi dezakegun indar eta dotoretasunaren sinonimo da, txundituta uzten baikaitu haren indar ikaragarriak eta gustu onak, emanaldi guztiak guztiz gogoangarri eta

ahaztu ezin bihurtuta. Taldea 1988. urtean plazaratu zen aurrenekoz, "Red House" izenburua zuen diskoarekin. Lan horretan euren sortutako hamabigai biltzen dira, bluesaren eta R&B musika moldearen tradiziozintzoenari jarraituz. Lan horrek berehalako ondorioak ekarri zituen, eta Espainia, Portugal eta Frantziako jaialdi ezagunenetan parte hartzeko gonbitak jaso zituzten. Jaialdiotan kritikarik onenak izan zituzten, eta ikus-entzuleen aldetik ere ezin harrera hobea jaso zuten.

2000. urtean argitaratutako "Hold On" izenburuko bigarren albumak are emaitza onak jaso zituen. Bitartean taldeak birak eskaintzen zituen atsedetik hartu gabe, betiere zuzeneko kontzertuak eta bestelako emanaldiak eta proiektuak tartekatuz; izan ere, 2003. urtean Europan zehar eskainitako biran, Scott Henderson Blues Band taldeari sarrera egiteko ohorea izan zuten, filmentzako doinu bandentzako gaiak idatzi zituzten, ekoizten jarraitu zu-



ten, etab. Bi urte iraun zuen bira horrek oso emaitza ona eskaini zuen: "Redhouse Captured Live", jarraitzaileen aspaldiko irrika aseko zuen zuzeneko album bikoitz berria, taldearen muina, eta agertokian erakusten duen maisutasuna eta talentua, argi eta garbi islatzen duena.

Laugarren albuma 2007. urtean iritsi zen: "Rattlesnake Road". Molde klasikoen eta hots berrien nahasketa eztagarria, "bluesy touch" erakusgarriarekin taldearen izaera agerian lagata; hitz gutxitan esanda, XXI. mendeko bluesa. Grabazio lanetan EEBBetako musikari hoberenetako batzuek parte hartu dute; esate baterako, John Parsons, Gaby Jogeix eta Chojinek berak, Espainian egiten den hip-hoparen ordezkari nagusiak. Gisa honetan bi musika molde eta bi hizkuntza elkartzen dira modu harrigarrian.

Errabal Jaialdi Ibiltariak aurkeztuta RED HOUSE molde klasikoko R&B talderik onenetakoa "Chihuahua Boogie" disko berriarekin

Aurtengo udazkenean Red House errepidera itzuli da arte horretan urte askotxo daramaten artisten lan berri eta ondo zaindutakoarekin, artisau profesionalen modura landutako eta zaindutako obrarekin. Oraingo honetan, gainera, nazioarteko izarrek lagundurik ageri dira; horien artean aipagarri dira, besteak beste, Blues Brothers talde mitikoaren sortzaile eta saxofoi jotzaile Lou Marini, Blasters eta Fabulous Thunderbirds taldeetako kide Gene Taylor, Espainiako artista ezagunenetako batzuk ahantzi gabe: Ramón Arroyo (Los Secretos), Gaby Jogeix, Carlos Sánchez eta Manuel Bagués (Marlango, Revolver).

Beraz, hemen da berriro ere Red House, molde klasikoko R&B talderik onena agian, "Chihuahua Boogie" disko berria aurkezten.



Punka, heavy-a, elektronikak eta metala gau berean

Barixakuan hasi zen Elgetako Espaloian Danbaka musika lehiaketaren laugarren edizioa. Jarraitzaileak hasieratik taldeen aldamenean egon ziren; lehenengo ilaran dantzan. Danbakaren laugarren edizioa abian da. Aurten ere maila altuko kontzertuak ikusiko ditugula argi geratu zen.

Gaztetasuna eta indarra

Oñatiarrek estreinatu zuten Danbakaren laugarren edizioko lehenengo gaua. Formatu akustikoan hasi zuten gaua: abeslaria eta gitarra aulki batean eserita eta balada goxo batekin. Hortik aurrera indartsu jardun zuten. Metal melodikoa egiten dute Black Riverrekoek eta gazteak izan arren sekulako indarra erakutsi zuten. Bigarren abestirako lehenengo ilarara jende mordoxka gerturatzea lortu zuten. Bigarren taldearendako Espaloia berotuta utzi zuten oñatiarrek.

Punka bete-betean

Bergara, Arrasate eta Soralezetik punk-rock doinuak ekarri zituzten Despreziokoe. Jarraitzaileak hasieratik izan zituzten aldamenean, jo ta ke dantzan. 80ko ha-

markadan Euskal Herrian jorratu zen punk-rocka ekarri zuten gogorra eta baita doinu ilunagoak ere, sinistroagoak. Hirukotea izanda ere indarra erakutsi zuten: bat-batekotasuna, amorrua eta gaztetasuna. Abesti motzak eta zuzenak egin zituzten, salaketa eta umorea tartekatuz.

Jarraitzaileak zorutzen

Gaueko talde beteranoaren txanda etorri zen ondoren: Bergarako Lord Witch. Taula gainera igo orduko jarraitzaileak zain zituzten euren taldearen izena oihukatzen. Danbakara aurkezten diren bigarren aldia da eta bergararrak nobedadeekin etorri dira: teklatua gehitu diote taldeari eta abeslari berria dute, orain arteko gitarra eta frontman-ari laguntzen.

Lord Witchekoek zoramenak ekarri zuten Espaloira: lehenengo ilarak jendez gainezka eta guztiak kontzertuan zeharo sartuta. Heavy-rock klasikoa egiten duen talde bergararrak argi utzi zuen sekulako eskarmentua duela.



Lord Witch taldearen irudia Espaloian jotzen.

Alemaniar elektronikak

Musika elektronikoarekin amaitu zen gaua. Danbakan orain arte entzun gabeko proposamena ekarri zuen La-Toxek, ikusleak Alemaniara eramanez. Gustora hartu zen nobedadea eta txalo eta animo-oihu asko entzun ziren Txusentzat.

Oñatiar eta bergarar asko Espaloian

Danbakaren laugarren edizioa giro ezin hobearrekin hasi da. Barixakuan Espaloia bete egin zen hasiera-hasieratik. Oñatiko Black Riverrek eta Bergarako Lord Witchek jarraitzaile asko eraman zituzten Elgetara. Dena dela, besterik gabe, eta Danbakak eskaintzen duen musika ikuskizunaz gozatzera joan zirenak ere asko izan ziren; urteroko jarraitzaileak, Debagoieneko eta inguruko musikaren jarraitzaileak. Lehenengo izateko ez zen hoztasunik igarri eta lehenengo kontzertutik jendea dantzan ibili zen lehenengo ilaratan.

BARESLE NAGUSIA

LAGUNTZAILEA

PRROST

kutxa
gazte

m
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

HEGARIKIDE LAGUNTZAILEA

ANTOLATZAILEA

Joiena 10
LITTE

DANBACA
10/29-30/29
www.danbaca.com

www.danbaca.com

EZTEIEN GEHIGARRIA



e&m argazkilaritza

24. zenbakia 2010eko UDAZKENeko gehigarria

PUBLIZITATEA: Itziar ALBIZU eta Belen ULAZIA

Telefonoa. 943 20 67 76 Faxa. 943 20 28 72

publizitatea@etakitto.com




Ezkonberriak elegante

Hamarkada askotan traje beltzak baino ez dituzte erabili Eztei egunean senargaiek. Gizonezkoendako aukera gutxiago dagoela aitzakia dela, kolorea ez da larregi erabili. Baina azkeneko urteetan kolore bizi eta ausartagoak erabiltzen hasi dira senargaien diseinuak egiterako orduan.

Garai bateko korbatek oraindik pisu handia badute ere, zapi, lazo eta horrelakoei gero eta aukera anitzagoa eskaintzen diete gizonezkoari. Eta, gainera, azkeneko urteetan gizonezkoak kolore biziak erabiltzen ausartu dira. Errazagoa da gizonezkoak kolore biziko korbata eta txalekoa erabiltzea, emakumezkoak bere soinekoan kolore biziko osagarriak erabiltzea baino.

Izan ere, zuria edo oso antzerakoa da oraindik ere emakumezkoen jantzietan kolore nagusia. 2010ean inspirazio erromantikoa da nagusi, oso oihal arinak erabiltzen dira, kristalezko adornuek garrantzi izugarria dute gaur egun. Baina kolorea oso gutxi erabiltzen da. Egon badago, gorritz edo beltzez jantzi-



ta ezkontzera ausartzen denik, eta horretarako aukera eskaintzen du merkatuak, baina ez da ohikoena.

2010eko eskoteek besoak agerian uzten dituzte, "palabra de honor" delakoa, gorputz estua eta gona zabala dira nagusi azken hilabeteetatik hona. Hala ere, gaur egungo merkatuak emakume eta

gizonezko bakoitzari eskaintzen dizkion aukerak amaitu ezinekoak dira, egun horretan mozturrotuta ez sentitze, bakoitzaren estiloari eusteko gero eta aukera gehiago eskaintzen du, beti ere, bereziki elegante, egun horretan lagun eta familiariko guztiak izango dituzute eta zuri begira.

CAPI
Bidebarrieta, 5
943 201 547

Laser fotodepilazioa

ezpainak	10 €
besapeak	50 €
izterondoak + besapeak	100 €
erdiak	120 €
erdiak + izterondoak	160 €
osoak	200 €
osoak + izterondoak	250 €
besoak	120 €
bizkarra	120 €

3x2

Masajeak

- OSTEOPATIA (buzurrekoa, estrukturala, erraietakoa)
- KIROMASAJEA
- TEKNIKA METAMORFIKOAK
- MASAJE TERAPEUTIKOA
- REFLEXOLOGIA (ordubete)

Tratamendu lipo-erreduktorea

5 saioekin
30 minutuko masajea edo erreflexologia OPARI

BERRIA

saio bat
150 euro / 30 euro

5 saio

BEGIBISTAKO EMAITZEKIN LEHENENGO SAIOTIK

KERALA
CIRKIZU PASLEK 11, SOLAIRUARTE
TLF. 943 530525
www.estetikakerala.es
R.P.S. 189/09

FOTODEPILAZIO ESKAINTZAK!!

HANKA OSOAK+IZTERRONDOAK+BESAPEAK 195€
HANKA ERDIAK+IZTERRONDOAK+BESAPEAK 145€
IZTERRONDOAK + BESAPEAK 90€
BULARRA+ABDOMENA EDO SORBALDA 145€

Preziosa saio bakoitzeko, epe mugatuko eskaintza

Mikropigmentazioaren inguruko atak zabalik jardunaldia
%20KO DESKONTUA BERTARATUTAKOENTZAT
deituzazu!!

- AURPEGI ETA GORPUTZ TRATAMENDUAK (Bach loreekin eta Mineral Esentziekin)
- CHAKRA BERROREKA - SPA MASAJEAK
- FOTOTERAPIA (lokalizatutako koipearen gutxitzea)
- Aurpegi FOTOGAZTETZEA
- MAKILLAJEA (Kurtso Personalizatuak)
- OPARITZEKO BONUAK
- URRE Edertze Tratamendua "REINA DEL NILO"

Ezteiak





Kanpoko
estetika
guztiz
berriztua



Dantza
terrazan
berandu
arte



Tel.
943 202 727
Faxa.
943 208 991
Arrate auzoa, z/g -EIBAR-



**HOTELA
JATETXEA**
Kretzelin

E-maila: conecta@hotelkretzelin.com

www.hotelkretzelin.com



On egin leku perfektuan

Ezteien egunean non bazkaldu edo afalduko dugun izaten da gehien aztertzen den gaietako bat. Izan ere, gonbidatu guztiendako behar den lekua izatea lehenatasunezkoa izaten da eta horrez gainera, asko begiratzen dugu zer nolakoa izaten den ingurua, eskaintzen duten jakien aukera eta abar luzea.

Mahaiak eta gonbidatuak jartzeko kokalekua ondo pentsatu beharra dago, oso modan jarri dira mahai borobilak, baina horrek leku gehiago behar izaten dute. Ezkongaietik hurbiltasunaren arabera, mahai batzuk gertuago eta bes-

teak urrunago izaten dira, ohikoena ezkongaien mahaiburutik hurbilen jartzen ditugu senideak eta ostean lagunak eta lankideak.

Gastronomiari dagokionez, argi dago Euskal Herrian bereziki gozatzen dugula mahai inguruan. Ohikoa bihurtu da argazkiak egiten ditugun bitarteko modakutxo edo luncha. Horrelakoetan eskaintzen ditugu zizka-mizka berezienak, jatetxeko txefak egin ditzala probak horrelakoetan,

jaki desberdinak probatzeko aukera ezinhobea izaten da-eta. Mahairatzen garenean bizpahiru plater gehiago izango ditugu, entsaladaren bat, arraina eta haragia ziur. Sorbeteak izan duen arrakasta handia da eta postreak amaituko du jaki gozoak jateko aukera. On egin guztiok!





Josu Torrealday












Loiola auzoa, 24 AZPEITIA
JATETXEA

Telefonia: 943 81 56 08 Faxe: 943 15 03 62
E-maila: kiruri@wanadoo.es

San Pelayo, 4 1978tik 1978tik Telefonia: 943 17 00 28
-ERMUA-

Lakett da nire edertasunaren sekretua

Lakett
ESTETIKA MASAJEA

Zezenbide, 4
943 53 00 66
www.lakett.com

ORDUTEGI JARRAITUA: 09.00-19.00. ZAPATUETAN: 09.00-13.00

T. Etxebarria, 24 20600 EIBAR

N E X X O
ALIANZAK




Tel. 943 20 73 04




MARRODAN
BITXITEGIA - ERLAUNDENA

KANTABRIA Jatetxea

Arrate Gaina, 4
279 Postakutxa
20600 EIBAR
943 121 262
943 127 334



*Edozein
ospakizunetarako
aukera*



www.kantabriajatetxea.com

**EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK**

ARRATEKO
SANTUTEGIAREN
ondoan aurkitzen gara

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak,
zilarrezko ezkontzak, urrezko ezkontzak,
karta, enpresa bazkariak...



RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA JATETXEA



Eztei bidaia, araimenerako prestatuta


Hilabeteak emango ditugu ezkontzaren eguna prestatzen. Nekea eta urduritasuna behin baino gehiagotan izango dugu. Baina konturatu orduko, eguna ailegatu da, orduan bai urduritasuna, guztia prestatuta dugula jakinda ere, egun osoan egongo gara leku batera eta bestera begira, guz-



tia ondo dagoela ikusteko asmoz. Eguna ondo pasatuko dugu, baina argi dago gure gorputzak, eta bereziki gure buroak guztia ahaztu eta disfrutatzeko eta lasaitzeko beharra izango duela. Hori guztia batuko da hurrengo egunetan egingo dugun bidaian.

Aurrekontuaren arabera argi dago urrutiago edo gertuago joango garela, hotelaren kategoria horren arabera ere aukeratuko dugula, baina azkenean gertuago edo urrunago, luxuzko hotelean edo ez, gure egunerokotasunetik aldentzea lortuko dugu, lasaitu eta bikoteki-dearekin disfrutatzeko aprobetxatuko ditugu egun horiek.

Karibea klasiko bihurtu da, itsasontzian egindako kruzeroek ere gora egin dute eta Afrikako safariak eta uharteak azken 5 urteetako errege izan dira. Baina ekialdeak, Asiak, Japoniak eta Vietnamek izandako igoera nabaria da. Behin Euskal Herritik irtenda, gure gizarrietik zeharo desberdina den gizarteak ezagutzeko aukera aprobetxatzen dutenak asko dira.



Bidaia agentziek duten aukera amai-gabea da, eurek egingo dizkigute egin beharreko tramite guztiak; gure lana egun horretan ahalik eta hobetoen igarotzea izango da; gure bizitzako bidaia-rik berezietakoa izateko aurrelanak mereziko du.

Ezkonberrientzako soilik



Aukeratu opari hauetako bat



Natura Egonaldi Xarmangarria

Finis bat bertija batzuen, gaztelu batzuen... Hala guztiak. Gostaria eta ailegatu opari bat berri.



Zen Pausa

Relaxazio eta ongizate-tratamenduak ondoan sortu zabal bat, hotelik onenean gozatu ahal izateko.

8

8 opariak aukeratu

12

12 opariak aukeratu

Opariaren balantzearen arabera. Lehen aukeratu dituzten opariak aukeratu behar dira. Opariaren balantzearen arabera, opariak aukeratu behar dira. Opariaren balantzearen arabera, opariak aukeratu behar dira.



EROSKI bidaiak zurekin

www.eroskibidaiak.com

fasprint

Inprimategia

Aukera zabala ezkontza gonbidapenetan eta papertegian orokorrean

fasprintei@yahoo.es - www.imprentafasprint.es
Ego Gain 11 ac - EIBAR - Tel./Faxa: 943 20 16 13



F. CALBETON, 16
-EIBAR-

**Ezkontza
egunerako
guztia...
...zure esku!**

TEL.
943 20 80 06



e&m
argaskigintza

www.enaritzmireia.com

Uzkua Posadakua 8 II, fax 943227911 email: info@enaritzmireia.com



jósutorrealday

www.josutorrealday.com
Fermín Calbetón 4-1-A, 48980 038 - 4830038



www.fotojauja.com

E
Z
K
O
N
T
Z
A

2011



GADIFOT
www.gadifot.es

ARGAZKILARITZA - BIDEOA
Iñaki Galparsoro
Komentukoa, z/g Tfnoa. 943 17 06 71 -ERMUA-



Orkideak eta larrosak nagusi

Aurten ez da kolore nahasketa handirik egingo lore-sorta gehienetan. Hori bai, kalitatezko loreak aukeratzeko esango digute loradenda guztietan. Emaztegaiaren soinekoak luxuzko apaingarria izango du orkideak, jazminak edo larrosak aukeratu. Kolore leunak izango dira nagusi, txuria edo arrosa gehien bat, baina kolore bakarreko sorta horretan indarra emango dioten loreak ere izango dira, moreak aurten berebiziko arrakasta izango du. Emaztegaiak gogoko dituen loreak aukeratu behar ditu, baina lorandendan zer nolako soinekoa duen azalduz gero, “bouquet”, “cascada” lora sorten arteko desberdintasunak azaldu eta aukeraketan lagunduko gaituzte.

Baina ez da lore-sorta bakarrik aukeratu behar. Hasteko senargaiak paparrean jarriko duen lore-sorta ere aukera beharra dago. Loradendan azalduko diguten moduan, aukera nagusi bi ditugu. Emaztegaiak izango duen lore-sortaren lore berdina aukeratu, bai kolorea, bai lorea

bera; edo, guztiz desberdina den zer edo zer aukeratu beharko dugu.

Eliza edo udal-etxean jarri beharrekoak ere aukeratu beharko ditugu. Ez dira emaztegaiak izango dituen lore berdinak izango, baina ez daitezela guztiz desberdinak izan. Kolorea bera izatea ondo egongo litzateke, berdin autoa apaintzerako orduan ere.

Otorduko mahaiei dagokienez, kontuz mahaietako lore-zentroekin. Ez daitezela handiegiak izan, xumeak eta gonbidatuak ez ditzala oztopatu, ez hitz egiterako orduan, ez alboan izango diren jakiak eskuratzeko orduan.




Josu torrealday

Aukeraketa handia da, merkatuan dagoen aukera oraindik handiagoa. Kolore, forma eta tamaina guztietako lore-sortak aurkituko ditugu, baina azkenean laguntasunarekin, egun horretan kolore eta usain berezia izango du eztei egunak.



San Juan, 1
Tel. 943 20 33 29



EZKONTZA tartak eta despedidetarako (ENKARGUZ)

ANTXON DEGUSTAZIOA

-T. ETXEBARRIA, 13-
Tel. 943 20 63 22

-ARRAGUETA, 14-
Tel. 943 56 85 43




Bidebarrieta, 1

Laumar

Tel. 943 20 16 26

Birjiñape, 1 Isasi, 16



LORA DENDA

Marca

943 20 88 47

San Andres gozotegia

Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu




Bidebarrieta 28 - 20600 EIBAR
Tel. 943 20 79 73



Orrazkeretan ez ahaztu apaingarriak

Azkeneko urte bietan emazte-gaien ilea solte ikusi da asko eta asko. Estilo neorromantikoa, erdi arokoak, melena solteak eramatea eskatzen zuten. Baina, 2010ean badirudi mototsek berriro ere indarra hartzen dutela. Gainera, era guztietako mototsak bueltatu dira, oso baxuak, beloa jartzeko egokiak, oso altuak, tiara edo lorak inguruan jartzeko eta oso landuak, ileordeak erabilia fantasiazko mototsa egiteko egokiak. Hala ere, nahiz eta berriro ere mototsak bueltatu, osagarriak ez dute indarrrik galdu. Lumak, loreak,




harribitxiak, tiarak, harriak, era guztietako osagarriak erabiltzen dira eta alde zurretik erosi behar izaten dira, ileapaindegiko arduradunek zer nolako apaingarria aukeratu dugun jakitea ezinbestekoa baita.

Senargaiek ez dute horrenbesteko ar-

zorik izaten, hala ere, komeni da eztei eguna baino hiru aste lehenago ilea moztea. Horrela, ilea nahikoa haziko da egunerako eta itxura guztiz naturala izango du. Bere itxura berritu eta metxa edo briloak egitea aukeratzen duenik ere badago, izan ere, eztei eguna berezia izanda, zergatik ez egun horretan bereizgarriren bat senargaiaren ilean? Horrelakoak egiteko asmoa izanez gero, neskekin gertatzen den moduan, lehenago ileapaintzeailearengana joan eta bien artean aukera onena zein izango den aztertu beharko dute.

- Depilazioa
- Diodo laserrarekin
- Luzapenak
- Visajismoa
- Emaztegiak
- Makillajea, Argazkilaritza eta Bideoa



Calbeton, 1 - 1. solairua 943 207 047

CASTAÑO



z boga
ESTILISTAK

Ezkongai eta gonbidatuetan adituak

Ifar kale, 6
943 702024



styling touch therapy

DOLLS

943 033 967
J. Etxeberria, 5 - behea

Bidebarrieta, 20 (Galeria Komertziala) **GIZONEZKOEN**

• Punta-puntako orrazkerak
• Ile tratamenduak

ILEAPAINDEGIA

ORDUA
HARTZEKO:
Tel. 943 20 16 48



BOSTON

F. PASCUAL Arane, 6
Telf. 943 20 61 64
Faxa. 943 20 85 43
20600 EIBAR




VIRGINIA PASCUAL
Zubiaurre, 36 (behea)
Tel. eta Faxa: 943 17 68 28
www.cocinaspascual.com
48260 ERMUA

SUKALDE ALTZARIAK BARNERAKO

4 eta erdiaren txapelketa nagusia berriro Astelenan

ORAINGOAN PABLO BERA-SALUZEK ETA IKER ARRETXE IZANGO DIRA, nor baino nor, domekako partidu nagusian. Biak ere Asegarce enpresako ordezkariek dira, Astelenan askotan izaten ez diren horietakoak; hori dela-eta, berri-tarraren jarraitzaile asko izango dira Eibarren. Jaialdia osatzeko, hasierako partiduan González-Arruti eta Idoate-Beroiz bikoteek neurtuko dituzte indarrak eta, amaitzeko, hirugarren partiduan Ongay-Larri-naga eta Gorka-Ceciliok jardungo dute.



Pablo Berasaluz.




Iker Arretxe.

Deportiboko eski batzordea neguko denboraldia prestatzen


ESKI DENBORALDIA GERO ETA GERTUAGO, BATZORDEKOEK TALDEKO BAZKIDEEI OHAR BI jakinarazi nahi dizkie: denboraldirako bonoak (Somporterako) egin nahi dutenak bulegoetatik pasatzeko (prezioa 68 bat eurokoa izango da) eta, bestalde, denboraldi berrirako, iraupen eta fondo ekipoarentzat batera, nahi du-

ten bazkide guztientzako eskiatzeko arropa egiteko asmoa dutela (mono osoa edo pieza bikoa). Eskaera zelakoa den, mono osoaren prezioa 70-75 eurotan irten daiteke eta pieza bikoa 90-95etan. Interesatuak martitzen eta eguenetan pasatu daitezke klubeko bulegoetatik, baina kontuan izan azaroaren 4an amaitzen dela epea.



Deporreko pelotariak ondo

Aurreko barixakuan Astelenan jokaturako Gipuzkoako Kluben Artekoaren jardunaldian, Eibarko pilotariak partidu bi irabazi zituzten eta bakarra galdu. Iker Narbaizak irabazi egin zuen set bitan (8-6 eta 8-2) eta gauza bera egin zuten Agirresarobe-Lantz jubenilek (22-13) Zestoako ordezkarien aurrean; Ruiz-Larrauri kadete mailako bikoteak 14 tantotan geratu ziren Itziarkoen aurrean. Bestalde, senior mailako Egaña-Bengoetxea bikoteak 22-20 irabazi zuen Tolosan.



Omenaldia Romarate eta Alberdi Urbat-Urkotronik-eko igerilariei

ANDER ROMARATE ETA MARKEL ALBERDI IGERILARIEK IBARKURUTZEKO ITURRIAREN IRUDI BANA JASO ZUTEN aurreko barixakuan Miguel de los Toyos alkatearen eskutik, igeriketa munduan lortu dituzten markak errekonozitzeko Udalak antolatutako ekitaldian. Gazteek ere oparia eraman zioten alkateari: igeri-

lari biak elkarrekin agertzen diren argazkia eman zioten, esker ona adieraziz. Kirolari gisara zoriontzeaz gain, horretarako beste arrazoirik ere izan zen, Markel Alberdik barixakuan bertan 18 urte bete zituelako eta, hori jakin bezain laster, udaletxeko aretoan bildutakoek "Zorionak zuri" abestu zioten.

Arrateren harrobiaren fruituak

ARRATE ESKUBALOI TALDEAK GAZTEEKIN EGITEN DIHARDUEN LANAREN EMATZA jaso du berriro ere: oraingoan Espainiako jubeniil mailako selekzioak Jon Azkue eta Ander Iriarte deitu ditu domekara arte Portugalen jokatzeko diharduten torneo batean parte hartzeko.

Bestalde, Asobal ligako taldeak atsedena izango du asteburu honetan eta hurrengoan, nahi eta nahi ez, irabazi egin beharko dio sailkapenean bere atzetik dagoen talde bakarrari.



Jon Azkue.

Herriko gimnastak Euskadiko txapelkun

IPURUAKO SENIOR TALDEAK EUSKADIKO TXAPELA IRABAZI ZUEN Bermeon jokaturako jardunaldian. Oraingoan, gainera, inoiz baino talde gazteagoarekin, batez beste hamasei urte dituzte eta senior taldeko neskek. Infantil mailako taldeak ere domina eskuratu zuen, brontzekoa oraingoan, 10 mazedekin egindako lan politarekin. Orain beste erronka bi izango ditu Ipuruako gimnastika erritmikoko taldeak: mnduko gimnasta onenekin lehiatuz jokaturako duten Euskalgym-a eta azaroaren 27an Ipurua kiroldegian egingo den San Andres nazioarteko torneoaren XII. edizioa.

Eibar - Bilbao Ath. bihar 16.00etan

AURREKO ZAPATUAN MODUAN, EIBARREK GOIZ JOKATUKO DU oraingoan ere: bihar arratsaldeko 16.00etan. Neurketa ETB-1ek emango du zuzenean eta hirugarrena izango da honezkerok Manix Mandiolaren taldearentzako telebistan. Pousoren Mirandésekin orain arteko partidu bakarra galdu eta gero, aurreko zapatuan Sanse-ri irabazi zioten Zubietan Manixen mutilek eta sailkapenean alde handiarekin

dira nagusi. Athletic-eko bigarren taldeak Eibarrek baino 11 puntu gutxiago ditu, baina azken sei jardunaldietan partidu bi irabazi eta lau berdindu ditu eta arriskutsua izan daiteke.

Autobusa Irunerako


Eskozia la Bravak autobusa antolatu du azaroaren 6rako, egun horretan Real Uniónek eta Eibarrek jokatu beharreko partidurako. Izena emateko azken eguna azaroaren 4a da.

Rugbikoen garaipena Zaragozan

DENBORALDIA TXARTO HASI ZUTEN EIBARTARREK Unben Atlético SS taldearekin galduta, baina bigarren jardunaldian Zaragozan bertako Fénix-en gainetik pasatu dira eta 17-23 irabazi. Emmanuel Galván izan zen eibartarren jokalaria onena, bere ostikadak zuzen-zuzenak izan ziren-eta; berak lortu zituen ia puntu guztiak, Iñigo Arizagak lortutako entsegu bikain bat kenduta. Atsedendian eibartarrak nagusi ziren (9-12) eta, epailearen erabakiak halamoduzkoak izan arren, Hierros Anetxeok lortu zuten horrelakoak alboratzea. Hurrengo partidua Unben izango da, baina ez asteburu honetan: Santanderreko Independiente azaroaren 7an izango da Eibarren.



Ferreirok finala galdu zuen Arrasateko squash txapelketan



Alberto Ferreiro eta Miguel Ruiz, torneoko finalistak.

EZIN IZAN ZUEN TORNEOKO BURUAREKIN, baina Arrasateko squash txapelketako finalera heldu zen Alberto Ferreiro Klub Deportivo ordezkaririk onena. Final horretan eibartarra 2-0 nagusitu zen, baina ezin izan zuen hirugarren set-a irabazi. Hurraino, bestalde, txapelketa bikaina egin zuen Ferreirok. Sergio Salgado final laurdenetara heldu zen, hor Unanue-rekin galtzeko; Jon Losada ere final laurdenetara iritsi zen, baina kontsolaziozko taldean; eta Jon Arana Aurretiko kontsolaziozko azpitxapeldun geratu zen. Guztira, 41 squash-lari izan ziren.

Hiru mendi egun berean

HORI EGIN ZUTEN KLUB DEPORTIBOKO MENDI TALDEKO PARTAIDE BATZUK aurreko zapatuan. Ataunera joan eta Leizadi (947 m.), Agaotz (974) eta Sarastarri gainak zapaldu zituzten, bidean zegoen haitzuloa eta Lareon dagoen pantano zoragarria ikustearaino batera. Ibilaldia amaitzeko, Larraitzen bazkaldu zuten.



EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

EIBAR

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza
BERRIA: Foto-depilazio Unitatea	15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

Etxola jatetxea

etxolajatetxea@hotmail.com
Erreserbak: 943-207019
Txirto kale, 1

Eguneko menua / Karta / Pintxoak
Enpresa eta taldeentzako aurrekontuak

Musika Eskolan talde bi jaio berri dira: Maite Arroitauregi zuzendari duen ganbera-orkestra eta Iñaki Orbegozoren zuzendaritzapean dagoen Musika Banda. Ibilbide laburra duten arren, instrumenturen bat jotzen dakitenak animatzen joango diren esperantza dute arduradunek.

IÑAKI ORBEGOZO,
musikaria:

“Zerbait jotzen dakienak atek zabalik aurkituko ditu”



- Nola sortu dira talde berri hauek?

Oraingoz Musika Eskolako ikasleekin hasi gara klaseak ematen, baina gure asmoa poliki poliki jende gehiago gerturatzeko joatea da eta, horrela, besteak beste, etorkizunean Cielito Musika Bandarentzat erreleboa ziurtatu. Izan ere, Cieliton dihardugun musikariak urteetan aurrera goaz eta beti komeni da gazteak taldean sartzen joatea, berritzeko. Bestalde, hemen ditugun musika ikasleei ez ezik, deialdia instrumenturen bat jotzen dakiten herritar guztiei ere egin nahi diegu, etxean bakarrik jardun barik, hona etorri eta taldean praktikatzeko aukera eskainiz. Hobeto pasatzeaz gain, mailaz igotzen joango dira.

- Nolako esperientzia da ikasleekin sortu berri duzun taldea zuzentzea?

Une honetan 8 eta 13 urte bitarteko hamar bat neska-mutilekin dihardut eta, normala denez, bakoitzak bere instrumentua nola jo ikasi duen arren, orain arte ez dute taldean, beste batzuekin batera jardun. Horregatik, erakutsi beharreko lehenengo kontua taldean nola jo behar duten da. Bestela, gazteak izan arren fiñak dira eta esandakoa egiten dute. Gainera, ondo datorkit eurak zuzentzen ibiltzea, gero nagusiekin jardun behar dudanerako. Urrian

Coliseoko kontzertuan pieza bat zuzentzen izan nuen estreinaldia eta domekan, berriz, kontzertu osoa zuzendu nuen lehenengoz.

- Erreleboa aipatu duzu, baina zuk 25 urte baino ez daukazu eta, Cielitorekin jotzeaz gain, zuzendariordea ere bazara, Usartza Txitulari Taldekoa, Euskadiko Orkestrako musikaria, Ustekaben jardundakoa... eta orain, gainera, musika irakaslea. Ibilbide oparoa horren gaztea izateko, ezta?

Ni neu Musika Eskolan hasi nintzen, Mari Karmen Etxeberria irakasle zeneko sasoin eta beste guztia berez etorri da. Gaur egun, musika jotzen ez ezik ikasten ere bete-betean murgilduta nago, Donostiako Kontserbatorioan 6. maila egiten dihardut.

- Kontzertu ugari ematen duzue urtean. Nolako giroa izaten da?

Jendeak musika bandei buruz duen irudia aldatzen joatea komeni da, oraindik ere antzinako doinuekin, pasodobleekin lotzen dituzte bandak, baina gure kontzertuetan jendea ez da aspertzen, ezta gutxiago ere! Egia da tradizioz pasodoble batekin hasteko ohitura daukagula, baina ondoren pelikuletako soinu bandetako abestiak eta bestela ere jendearentzat ezagunak diren piezak eskaintzen ditugu.



Iñaki Fernández-en kartela sanandresetarako

LEIRE KAREAGA, ASIER L. DE VIÑASPRE ETA MARINA BARRENAK OSATUTAKO EPAIMAHAIK aurreko astean eman zuen ezagutzera Sanandresak 2010 kartel lehiaketara irabazi duenaren izena: Iñaki Fernández Iturmendi (Arre, Nafarroa), “Bilgune” izenburuko lanarekin. Aurtengo irabazlea oso ezaguna da kartel lehiaketetan ibiltzen direnen artean, ahal duen guztietara lanen bat bidaltzen ahalegintzen

delako eta orain arte 200 saririk gora jaso dituelako. Umeen mailan, 11 eta 14 urte bitarteko artean Ion Jayo Guirao (11 urte) izan da irabazlea, “Sanandresetarako lapikoa” izenburukoarekin eta 10 urtera artekoetan Goretti Abascal Larrabe (9 urte) izan da txapeldua, “Argipean” izenburuko kartelarekin. Edizio honetan 85 lan jaso dituzte lehiaketako antolatzaileek, horietatik 35 helduen mailan lehiatzeko.

Aurreko edizio bateko irabazle bat, Miren Amuriza bertsolariaren eskutik jasotako sariarekin.



Bertso paper lehiaketarako epea amaitzean

AZAROAREN 5-EAN ITXIKO DA ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK ANTOLATUTAKO San Andres bertso paper lehiaketarako lanak jasotzeko antolatzaileek ezarritako epea, baina egun horren aurretik, oraindik sasoz zabilzate bertsoaren batzuk idatzi eta lehiaketan parte hartzeko. Bertsoak gai eta doinu librean egingo dira eta hiru maila bereiziko dituzte: Eibarko ikasleentzat adinaren arabera (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta Eus-

kal Herri mailara zabalduakoa, 16 urtetik gorakoentzat. Aurkeztu beharreko lanen neurria ere mailararen arabera aldatzen da: gazteenek bertso baina edo koplak bi entregatu behar dituzte, DBHkoek bertso bi edo 4 koplak gutxienez eta gainontzekoek 4 puntu edota gehiagoko 6 bertso gutxienez. Maila bakoitzeko sari bi banatuko dituzte. Lanak euskara elkartearen egoitzan entregatu behar dira (Urkizu, 11 solairuartea).

Bihar abiatuko da Kameratoia Ermuan

KAMERATOIA, TOPAGUNEA ANTOLATUTAKO EUSKAL HERRIKO VI. IKUS-ENTZUNEZKOEN RALLYA bihar hasiko da Ermuan eta azaroaren 6ra arte luzatuko da. Lehiaketa 10.30etan hasiko da Lobiano Kultur Gunean: lehiaketarako izena eman duten 28 taldeek orduan jasoko dituzte sortu beharreko ikus-entzunezkoaren gaia eta irudietan atera beharreko Ermuko tokiak zehazten dituen zerrenda. Behin azalpen guztiak jasota, beste



lau egun izango dituzte gidioak idatzi, irudiak grabatu, edizioa egin eta lanak amaituta aurkezteko. Lanen iraupena 5-10 minutukoa izango da eta hiru sari banatuko dituzte (1.500, 1.200 eta 900 euro).

Karmele Artetxe, UEUko zuzendari berria


UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAK IKASTURTE HASIERARAKO EKITALDIA EGIN ZUEN AURREKO BARIKUAN MARKESKUAN, baina aurretik ez-ohiko batzarrean aurrerantzean UEUko zuzendari kargua beteko duen laguna aukeratu zuten: Karmele Artetxe Sánchez (Zamudio, 1976). Historian doktorea, ikertzailea eta une honetan Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea ere bada. Orain arte UEU-

ko Proiektu Arduraduna izan da eta, horren aurretik, UEUK sortu eta garatutako Inguma datu-basean dokumentalista jardun zuen beharrean. Artetxek 2012ra arte karguan egoteko konpromisoa hartu du, hortik aurrera beste proiektu batzuk garatu nahi dituelako. Ekitaldi berean 2005. urteaz geroztik zuzendari kargua bete duen Lore Erriondori urte hauetan egindako beharrezko eskerrak eman zizkieten.



Tratu txarren inguruko antzezlanak

TANTAKA TEATROA TALDEAREN ESKUTIK "NO ME HAGAS DAÑO" ANTZEZLANA ailega-



tuko zaigu gaur Coliseora. Aurtengo Donostia Hiriko Kutxa Literatur Saria jaso duen antzezlanak emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko istorioa kontatzen du, Rafael Herreroren gidioari jarraituta eta Fernando Bernués-en zuzendaritzapean. Aktoreak, berriz, Maiken Beitia, Kike Díaz de Rada, Olaia Gil, Tania de la Cruz eta Isidoro Fernández dira. Antzezkizuna 20.30etan hasiko da eta sarrerak 3 eurotan ipini dituzte salgai, aurrealmentarako ohiko bideei jarraituta.

Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko istorioa kontatzen zaigu.

Pozik makrobiotikaren munduan murgiltzen

ORAIN ARTE LAU SAIO EGIN DITUZTE ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK ANTOLATUTAKO MAKROBIOTIKA IKASTAROAN parte hartzeko izena eman zuten 17 lagunek. Portalean, sukaldaritza ikastaroak emateko bereziki prestatutako sukaldean jardun dute makrobiotikaren inguruko sekretuak eta errezeta gozoak nola prestatu behar diren ikasten, Simone Begiristain gidari izan dutela. Elikagaien arteko oreka oinarritzat duen sukaldaritza mota honek gero eta jarraitzaile gehiago dauzka mundu osoan, baita gure herrian ere.



Ikastaroa parte-hartzailea izan dela erakusten digu argazkiak. / AINHOA LUZ

laburrak

Akordeoi bila

Urteroko moduan, Gabonen inguruan kontzertua antolatuko du Musika Eskolak. Abenduaren 22an izango den emanaldi horretarako akordeoi taldetxoa antolatu nahi dute oraingo ikasleekin eta ikasle-ohiekin. Marisol Arrillaga irakasleak dioenez, "joko ditugun piezak nahiko errezak dira eta, horregatik, gure ikasle izan direnak parte hartzera animatzea nahiko genuke". Animatzen direnak Musika Eskolara jo dezakete, antolatzaileekin berba egiteko.

Kontalaria

Besteak beste Fran Lasuenen partaidetza duen "Kontalaria" egitasmoa autobusa Eibarren izango da azaroaren 6an, 16.00etatik 20.00etara Untzagan. Atzo Portalean egindako aurkezpenean azaldutakoari jarraituz, "haur nahiz gazte, heldu nahiz adineko, guztiak har dezakete parte euskeraren erabilera sustatzea helburu duen proiektu honetan". Autobus berezi hori herririk herri dabil, jendearen kontakizunak jasotzen eta, horrela, amaieran hamaika laguneren artean sortutako istorioa osatuko dute.

Orquesta Mondragón

Lambretta Klubak azaroaren 27rako Astelena frontoian antolatu duen Orquesta Mondragón taldearen kontzerturako sarrerak salgai daude honako tokietan: Eibarren Ayerbe liburutegian eta Portalea, Birjiñape, Trinkete, Arno eta Caserio tabernetan; Elgoibarren, Lanbroa eta Kaia tabernetan; Ermuan, Xagua tabernan; eta Durangon Horse tabernan.

Pintxo lehiaketa

Herriko tabernarientzat pintxo lehiaketa antolatu du Kulturalak, azaroaren 25erako. Izen-emateko eta informazioa eskatzeko elkartera jo daiteke. Bulegoaren ordutegia hau da: eguenetan 16.15etatik 18.15etara eta barixakuetan 16.30etatik 19.00etara.



lazgo erakusketaren irudia. / MAIALEN BELAUSTEGI

Jardunaldi mikologikoak asteburuan

EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO MENDI TALDEAK ANTOLATUTA, XII. jardunaldi mikologikoak egingo dira asteburuan (30ean eta 31an). Bihar goizean irteeran parte hartzeko izena eman duten umeak eta mendi taldekoak mendira joango dira, perretxikotara. Arratsaldean, perretxikoak sailkatu egingo dituzte, Klub Deportiboan, Aranzadi zientzia elkarteko kideen laguntzarekin. Eta domekan bezperan batutako perretxikoekin erakusketa ipiniko dute Toribio Etxebarrian. Aurreko edizioetan legez, perretxiko batzuk jateko aukera ere eskainiko dute.

Bolivia, Munduko Paisaiak kanpainako ardatza

MUNDUKO PAISAIK KANPAINA AURKEZTU ZUTEN AURREKO BARIXAKUAN Juan San Martin liburutegian. Eusko Jaurilaritzako Kultura sailatik bultzatutako kanpainaren harira, aurten Bolivia ardatz izango duen programazioa antolatu dute: Boliviari buruzko interesgunea martxan dago liburutegiko txoko batean eta, horrez gain, azaroaren 4an artisautzaren inguruko erakusketa ipiniko dute ikusgai. Azaroaren 12rako dantza erakustaldia antolatu dute eta, bide batez, jantzi tradizionalak bertatik bertara ezagutzeko aukera egongo da. Bestalde, Boliviari buruzko bideoa prestatzen dihardute eta ikus-entzunezkoa liburutegian emango dute. Azaroaren 18rako hango sukaldaritzako hainbat jaki nola prestatzen diren ikasteko tailerra egingo dute eta, egitaraua biribiltzeko, azaroaren 19an mahai-ingurua egingo da.



Los Peques del León.






Abian da Musikaldia

MARTITZENEAN ABIATU ZEN EIBARKO XVIII. MUSIKALDIA, BULGARIAKO CHOIR RODINAK EMAN ZUEN KONZERTUAREKIN. Atzo, berriz, Suitzako Ensemble Vocal Callirhoé abesbatzaren txanda izan zen. Biak, Asturiaseko Pe-

Contemus Children's Choir.



ques del León de Oro eta Hungariako Cantemus Children's Choir taldeekin batera, Tolosako 42. Nazioarteko Lehiaketan parte hartzen izan dira eta, bide batez, Eibarren euren musikarekin gozatzeko aukera paregabea eskaini digute antolatzaileek. Aurtengo kartelak, abesbatzen ohiko emanaldiak ez ezik, sortu berri den Kammerphilharmonia ganbera-orkestraren emanaldia ere hartzen du eta, berritasunekin jarraituz, José Ramón Orozko tenore eibartarra gogoan, herriko hainbat talde eta bakarlariren parte-hartzea izango duen emanaldi berezia antolatu dute azaroaren 5erako. Eta azaroaren 13an Esteban Landart-ek organo kontzertua emango du San Andres elizan. Azken kontzertu hau izan ezik, beste guztiak Coliseo antzokian izango dira, 20.30etan. Sarrerak honez gero salgai daude, 3 eurotan (Orozkoren omenaldirako 5 eurotan).



Indalezio Ojanguren sariak Portalean ikusgai


GAUR ARRATSALDEAN ZABALDUKO DUTE PORTALEAN, 18.30-ETAN Indalezio Ojanguren XXIII. Argazki Lehiaketan saritutako lanekin eta epaimahaiak aukeratutako beste argazki batzuekin osatutako erakusketa eta ekitaldian bertan banatuko dizkiete sariak aurtengo irabazleei. Argazkiak azaroaren 21era arte egongo dira ikusgai, martitzenetik domekara 18.30etatik 20.30etara.

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguazten aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, EIDER García Quintana, 26xan zortzi urte egin zenduaz-eta. Lehengusu-lehengusifñak eta osaba-izebaren partez.




Zorionak, MAIA, atzo lau urte egin zenduazelako. Patxo haundi bat, printzesa, etxekuen partez.




Zorionak, MALEN, bixar zortzi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat amatxo, aitaixo eta Asierren partez.




Zorionak, GAIKZA Mendieta, gaur bost urte egitten dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Garaziren partez.




Zorionak, IKER Lazkano Kortina, atzo urtebete egin zendualako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JON Telleria, astelehenian zortzi urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



GORKA eta MIREN: zorionak, bikote, bixar ezkontzen zarie-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, IRATI Zarrua, azaruaren 4an lau urte beteko dozuz-eta. Etxeko guztien partez.



Zorionak, EKAIN, potxolo, hirugarren urtebetetziagaittik. Etxeko danon partez.

JAOTAKOAK

- Danel Manero Zafra. 2010-X-15.
- Gaizka San Jose Pons. 2010-X-17.
- Mara Olañeta Zenarruzabeitia. 2010-X-18.

HILDAKOAK

- Andoni Zaldibar Oianguren. 82 urte. 2010-X-21.
- Carmen Amuategi Sarasketa. 68 urte. 2010-X-22.
- Honorato Matorra Barona. 89 urte. 2010-X-24.
- Abel Las Heras Sabando. 65 urte. 2010-X-25.

zinea Coliseoan

29an: 22.30
30ean: 19.45/22.30
31n: 19.30
1ean: 19.30

"Izarren argia"

Zuzendaria: Mikel Rueda
 Aktoreak: Klara Badiola, Barbara Goenaga, Estibaliz Gabilondo, Itziar Lazkano




Espainiako gerra zibilaren kapitulu iluna bizi izan zen Saturrarango emakumeentzako kartzelan. Pantera Zuria ezizeneko zentroko zuzendariak seme-alabak kenduko dizkie kartzelatutako errepublikanoen hainbat alargunei, sua piztuz...

29an: 22.30
30ean: 19.45/22.30
31n: 19.30
1ean: 19.30

"El americano"

Zuzendaria: Anton Corbijn
 Aktoreak: George Clooney, Bruce Altman, Thekla Reuten, Violante Placido



Jack bakartia da, maisua hiltzaileen artean. Suedian duen eginbehar batek kale egingo du eta Larry bere kontaktuak misio hori azkena izan dela erabakiko du. Jack Italiara joango da eta emakume belgiar batek beste misio bat enkargatuko dio...

Ego-lbar zine-kuba

4an: 17.30/21.00

"Amerika"

Zuzendaria: Cherian Dabis
 Aktoreak: Nisreen Faour, Melkar Muallem, Hiam Abbass, Joseph Ziegler



Muna eta Fadi bere seme nerabea Zisjordaniatik EEBBetara joango dira bizitzera hobearen bila. Munaren ahizparen familiak hartuko ditu Illinoisen eta kultura berria asimilatu beharko dute, euren galdu barik eta inguruko mesfidantza saihestuz.

horoskopoa

ARIES

Asteburuan ezagutu zenuen lagun horrek kilika baino gehiago egin ditu. Bihar ere ikusiko duzu: ea bere begiek zer esaten dizuten.

TAURUS

Negua gainean dugu eta horrek triste ipintzen zaitu. Argitasuna arnasa hartzea beste behar duzu. Kolore bizidun erropak jantzi!

GEMINI

Uda aurretik aldaketa prozesu sakonean murgildu zinen eta ziklo hori ixtera doa. Egoera berriarekin gozatzeko sasoia heldu zaizu.

CANCER

Lagaizu mobila behingoz pakean! Egun osoa ematen duzu sms-ak bidaltzen... Kontrolatu zaitetz, horrela dirua aurreztuko duzu-eta.

LEO

Badakizu egun hartako haserrea ez duzuela oraindik konpondu. Burutik kentzea kostatzen ari zaizu eta erremiak hor jarraitzen du.

VIRGO

Bizitza lasaia hartu beharko zenuke; zure buruarekin egoteko denbora behar duzu. Mendira joan, arnasa sakon hartu eta erlaxatu.

LIBRA

Komunean denbora asko pasatzen duzu. Zer demontre egiten duzu hor? Etxekoak beti dauzkazu pasilloan zu urtetzeko zain. Mugitu!

SCORPIUS

Armarioak txukundu: udako eta neguko arropak nahastatuta dituzu eta manga motza eta linozko prakekin zabilta 8 gradurekin!

SAGITTARIUS

Aste honetan ezagutu duzun lagun hori ez da zurekin gogoratu ere egiten. Ahaztu eta besteren batengan fijasen bazara.

CAPRICORNIUS

Non duzu burua? Bitaminak edo zerbait behar duzula esango nuke, dena ahazten zaizu-eta. Arreta ipini egiten dituzun gauzetan!

AQUARIUS

Ezetz esaten ikasi behar duzu, bestela azkenean ezingo duzu ezer ganoraz egin. Indarrak dosifikatu eta zuretzat denbora hartu.

PISCIS

Osasun aldetik makaltxo zabilta azken aldian. Asteburuan etxean gelditzea gomendatzen dizut. Izango duzu parrandarako astia.



ORDU ALDAKETA

Zapatutik domekarako goizaldeko 03.00ak heltzean, erloju guztiak ordubete atzeratu egin beharko ditugu, 02.00etaraino. Beraz, ofizialki ordubete gehiago izango du asteburu honetako domekak. Neguko ordutegi honek martxoaren 27ra arte iraungo du; egun horretan udakoa jarriko da berriro indarrean.

Barixakua 29**HALLOWEEN**

18.00.- Halloween jaia. O'hara tabernan.

SARI BANAKETA

18.30.- I. Ojanguren XXIII. Argazki Lehiaketan saritutakoei saria ematea eta erakusketaren inaugurazioa. Portalean.

ANTZERKIA

20.30.- "No me hagas daño". Tanttaka Teatro taldea. Coliseoan.

Zapatua 30**XII. JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK**

08.00.- Perretxikoak batzera joateko irteera. Arratsaldean perretxikoen sailkapena. Deportiboan.

ZAPATUKO IPUINA

18.00.- "Beti Lagun", Rosa M^a Martínez. Umeen Liburutegian.

MUSIKALDIA

20.30.- Kammerphilharmonia ganbera orkestra. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

Domeka 31**XII. JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK**

10.00.- Perretxiko erakusketa eta dastaketa. Toribio Etxebarria kalean.

MUSIKALDIA

20.30.- Peques del León de Oro abesbatza. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

Astelehena 1**GAZTELEKUA**

17.00.- Beldurrezko filma emango dute. Errota gaztelekuan.

KANPOSANTUKO ORDUTEGIA

Urriaren 29an, 30ean eta 31n eta azaroaren 1ean eta 2an, **08.00etatik 20.00etara** egongo da zabalik. Martitzenean (azaroak 2) **11.00etan** meza egingo da kaperan.

Ikastaroak**- Giza Irudia, modelo bizidunarekin**

Noiz: Martitzen eta eguenean, 09.30etatik 11.30etara eta astelehenetan 19.00etatik 21.00etara.

Non: Arrate Kultur Elkartearen, Maite Arriagarekin.

Informazioa eta matrikulazioa (urte osoan zabalik): 622053933 edo 943821353 telefonoan (mezua laga).

lehiaketak**- San Andres bertso paper lehiaketa.**

Informazioa eta lanak aurkeztea: Azaroaren 5era arte, ...eta kitto! Euskara Elkartearen.

Martitzena 2**IKASTEN**

10.00.- "Inteligencia emocional", Adinduren eskutik. Armeria Eskolan.

SENDABELARREN FOROA

15.30/18.00.- Fruitarbolak inauten ikasteko kurtsoa. Joan nahi duenak M^a Rosa Orbeari deitu (667207684). Portalean.

MANIFESTAZIOA

19.00.- Tallarra gaztetxeak "Tallarra eta gune askeak maite ditugulako" (hustutzeko agindua 11.00etarako). Untzagan.

MUSIKALDIA

20.30.- Cantemus haurren abesbatza. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

ARTEA ETA MUSIKA

20.30.- Maite Arriaga eta Vannesa Ateca zuzenean margotzen eta tatuaiak egiten, jazz musikarekin girotuta. Bost tabernan.

Eguaztena 3**ASANBLADA IREKIA**

19.00.- Ezker Batuaren tokian tokiko asanblada irekia (herritar guztientzat zabalik). Ezker Batuaren egoitzan (Zezenbide, 1-1.).

Eguena 4**IKASTEN**


10.00.- "La mujer en la historia del País Vasco", Urko Barrosen eskutik. Armeria Eskolan.

MUNDUKO PAISAIK

09.00.- Boliviako artisautza eta bestelako erakusketa. Juan San Martin Liburutegian.

ZINE KLUBA

17.30/21.00.- "Amerrika" (Zuz: Cherien Davis). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.



erakusketak

- Urriaren 29ra arte
EIBAR K.E.-ren argazki erakusketa, Manix Mandiola lagun taldeak antolatuta. *Untzagako jubilatutuean.*
- Urriaren 30era arte
MATEO GUILABERT-en "Bardeak" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
- XAQUÍN ROSALES**-en argazki erakusketa. *El Ambigú tabernan.*
- MIKEL OROZKO**-ren "Berlin in Furs" argazki erakusketa. *Durangoko Arteka liburudendan (Artekale, 20).*
- Urriaren 31ra arte
ERREKATXU TALDEkoen artelanak: Javier Larreategi, Mary Hernández, Marina Pérez, Mila Aguilar, Charo Gil, Lourdes Aranguren, Mari Tere Otxandiano eta Mari Fran Ereña. *Topalekuan.*
- Azaroaren 14ra arte
"INPRESIOAK" (euskal artisten obra grafikoa). Luis Candaudap, Marta Cárdenas, Alfonso Gortazar, Gonzalo Jauregi, Juan Mieg, Esperanza Zabala, Jose Antonio Azpilikueta, Damaris Pan, Amagoia Ruiz, Jorge García, Fernando de Vicente, Imanol Larrinaga eta Imanol Marrodán. *Portalean.*
- Azaroaren 21era arte
INDALEZIO OJANGUREN XXIII. Argazki Lehiaketan saritutako argazki erakusketa. *Portalean.*
- Azaroaren 30era arte
HERRI KIROLLEN-ren inguruko erakusketa. *El Corte Inglés-ean.*

farmaziak

- 29, barixakua**
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
GAUEZ Elorza (J. Gisasola, 18)
- 30, zapatua**
EGUNEZ Larramendi (Calbetón, 19)
GAUEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- 31, domeka**
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
GAUEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- 1, astelehena**
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
- 2, martitzena**
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
GAUEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- 3, eguaztena**
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
GAUEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- 4, eguena**
EGUNEZ Urizar (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- 5, barixakua**
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ Mendinueta (Urkizu, 6)

telefono jakingarriak

- SOS delak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 18.30etara orduro, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.
- EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.
- EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.
- EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.
- EIBAR-ARRATE.** Egunero: 15.30. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Egunero: 16.00. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.
- EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.
- EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara orduro. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara orduro eta 21.55.
- tren ordutegiak**
- EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.15etara orduro, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara orduro, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.
- EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

sarrerak salgai

- ANTZERKIA:** "No meagas daño". *Urriak 29, 20.30.*
- MUSIKALDIA:** Kammerphilharmonia. *Urriak 30.* Peques del León de Oro. *Urriak 31.* Cantemus Children Choir. *Azaroak 2.* J.R. Orozkori omenaldia. *Azaroak 5.*

SUDOKUA

2		3	4			8		
	5	9		6				
					5			7
	2			4	9			
	6						5	
			7	2			1	
8			6					
				1		3	8	
		1			3	6		2

DENBORAPASAK

6	9	1	4	8	9	7	5	2
8	4	9	2	7	5	6	1	3
5	7	2	3	6	1	8	9	4
0	8	5	1	4	8	9	2	7
1	6	4	7	3	2	5	8	9
3	2	7	9	5	8	1	4	6
2	1	3	5	9	7	4	6	8
4	5	8	6	2	3	9	7	1
7	9	6	8	1	4	2	3	5

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Legarren. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Berriztuta. Bizitzera sartzeko moduan. 23.500.000 pta. Tel. 659-687736.
- Pisua salgai Estaziño kalean. 3 logela. Ganbara eta igogailuarekin. Handia, eguzkitsua eta dena kanpora begira. Tel. 657-721018. Sonia.
- Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde eta komun bi. Trasteroa eta igogailuarekin. Guztiz berriztua eta argitsua. 130 m². Tel. 626-203838.

1.2. Errentan

- Logela alokagai Eibarko erdialdean. Tel. 657-779628. Alazne.
- Pisu berriztatua alokagai Mutri-kun. 3 logela, komun bi eta terraza. Kalefakzioa. Tel. 943-201294 edota 645-728317.
- Mutil serioak (ikaslea) logela hartu edo pisua konpartituko luke alokairuan. Tel. 666-191152.
- Pisu baxua alokatuko nuke. Tel. 943-702421 edo 620-666446.
- Pisua hartuko nuke alokairuan, bikote batendako modukoa. Tel. 667-355646.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Txomon. 36.000 euro. Tel. 644-403759.
- Erabilpen askotarako txoko edo lokala salgai edo alokagai Eibarko erdialdean. Berriztua, sukalde eta komunarekin. Tel. 669-293427.

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai, 7 metroko trastelekuarekin, San Andres pasealekuan. Tel. 943-120308.
- Musika talde batek lokala alokatu nahi du. Berdin dio beste batzuekin partekatzea. Tel. 645-722611. Gaizka.
- 1. solairua alokagai Bidebarrieta 23an. Tel. 609-918803.
- 33 m²ko lokala (komuna eta dutxarekin) alokagai Ibarburutze 4ko 1. solairuan. Tel. 636-209131.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria-laguntzaile titularekin. Esperientzia. Tel. 617-567336.
- Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 685-715805.
- Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 663-786976.
- Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 687-114707.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 659-731324.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 656-946074.
- Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 659-037882.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 645-366850.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 689-617818.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak (geriatria ikastaroa) edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-311385 edota 636-362251.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria laguntzaile titularekin. Tel. 682-263549.
- Emakumea eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 697-565303.
- Neska eskaintzen da nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-005760.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 669-966611.
- Neska eskaintzen da umeak eta nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 659-080186.
- Neska eskaintzen da arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 646-821678.
- Neska eskaintzen da 09.30etatik 16.00etara nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-886701.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko (gauetz ere bai). Tel. 943-531608 edota 690-212081.
- Geriatria laguntzailea eskaintzen da emakume nagusiak zaintzeko. Prezio onean. Tel. 695-898349.
- Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 670-767916.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 943-752329 edota 648-514535.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 635-313375.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez haurrak eskolara eramateko. Tel. 685-778554.
- Neska eskaintzen 13.00etik 18.00etara tabernak, etxeak eta soziedadek garbitzeko. Tel. 606-169667.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da asteburuetarako Eibarko taberna batean. Hobe euskeraz badaki. Tel. 943-208439.
- Estetizista behar da Elgoibarko estetika zentro baterako. Tel. 943-531636.
- Masajista behar da, esperientziarekin. Tel. 943-530066.
- Ile-apaintzailea behar da Eibarko egun erdiz lan egiteko. Tel. 943-207249.
- Asteburuatarako kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Tel. 943-702447.

6. Denetarik

6.1. Salgai


- Paseorako silla salgai. Jane Nomad markakoa eta urdin marinoa, egoera oneko itsas-zakua eta burbuilarekin. 100 euro. Tel. 620-720953.
- Garbigailua salgai. Otsein LTC 451H markakoa. Goitik kargatzena. La erabili gabe. Tel. 943-121051.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Belarritakoa galdu nuen Karmengo elizaren inguruan. Urre zuria eta brillanteduna. Bueltatzen duenari seria emango diogu. Tel. 616-351176.



MONUMENTU ARTISTIKOA




LASA JATETXEA

*250 LAGUNENDAKO
JANGELA*



El Diario Vasco
"Más gastronomía"
Sariaren irabazlea
2009an,
BANKETEETAKO
GIPUZKOAKO
JATETXE
ONENA moduan.



*ERA GUZTIETAKO BANKETEAK
ospatzeko toki bikain batean*

Ozaeta Jauregia

Tel. 943 76 10 55

Faxa: 943 76 20 29

www.restaurantelasa.com

BERGARA

